

Erljioak gaur zentzurik bai?

Joxe Arregi*

Orain arte ezagutu dugun aurrerapenak -aurrerapen deitzea zilegi bada- ez du erljioa irentsi. XXI. mendearen hasieran, bizi-bizirik dago galdera gisa nahiz bizipen gisa, baita erakunde gisa ere.

Zergatik? Gizakiak, ezagutzen dugunetik eta ezagutzen dugun heinean, harrimena eta galdera bere-bereak dituelako, edertasun eta ontasun betearen deiak eta desirak barnetik gidatzen dutelako, misterio salbagarri batek, hasieran eta amaieran, altzoan garamatzen susmo isila berekin daramalako, eta ezin diolako erabat uko egin guztientzako justizia osoaren ametsari bere buruari uko egin gabe.

Erljioa bizi da, beraz. “Beti bezala”, esan daiteke agian. Baina “beti bestela” esango nuke hobeto. Izan ere, bizia bera bezala, etengabe berrituz bi-

zi da erljioa. Erljioaz hitz egiteak eta erljioak berak badute zentzurik, baina ez lehenaren sostengu eta errepika huts izatekotan, baizik eta begirada eta sentimena, elkartasuna eta esperantza, erakundea eta hizkuntza etengabe berri-tzekotan.

1. Positibismoak porrot

Joan den mendearen lehen erdian, duela berrogeita hamar urte, askok iragarri zuten erljioaren galera, desagerpena. Modernitatearen, jakintzaren, aurrerapenaren etsai omen zen. Ezjakintasunak omen zekarren eta atzerapenera omen zeraman. Tximistaren suari ihes egiteko erramu-hosto bedeinkatuak erretzea edo santuren bati otoitz egitea baino erremedio hoberik ez zenean balio omen erljioak, edo eritasunak sendatzeko Ama Birjinaren bati

* Teologi irakaslea Deustuko Unibertsitatean eta Gasteizko Teologi Fakultatean. Arantzazu.

promes egitea bezalakorik ez zenean, edo lehorteari aurre egiteko errogatibak egin ohi zirenean, edo hil osterako Jainkoaren judizio zorrotzari beldur ziztaionean, edo bizimoduko arazoak apaiz eta gotzainen esanera erabaki ohi zirenean... Baina ez mundu modernoan. Bazirudien, bada, antigoaleko zerbait izanik, modernitatea nagusitu ahal, bere kasa desagertuko zela. Traste zaharren zokoan baztertua, edo oroigarrien kutxan ahaztua edo arte-museoren batean arduraz jaso geldituko zela.

Iragarpenok lehenagotik zetozen, A. Comte filosofo frantsesarengandik bereziki, XIX. mendearen erdi aldera. Giza historia osoa gizaki bakoitzaren historiarekin alderatzen zuen honek: gizadiaren haurtzaroko kontua omen erlijioa, gaztarokoa filosofia eta helduarokoa zientzia; filosofia dagoeneko ari zen erlijioa baztertzen, baina filosofiak berak ere guztiz baztertua gelditu behar zuen laster zientziaren eskutik. Zientziari esker, dena jakitera, dena sendatzera, dena konpontzera iritsiko zen gizadia, eta zertarako ziren orduan erlijioaren kezkek eta pozak, zertarako filosofiaren gogoetak eta galderak? Behe-laino itsua eguzki-errainutan xurgatzen den bezala, hainbat amets gaizto esnatze hutsarekin uxatu ohi diren bezala, superstizioak zientziari esker bertan behera galtzen diren bezala, halaxe galduko zen erlijioa bere sineskizun, erritu eta arau guztiekin batera, zientzia gailenduko zen heinean.

XX. mendean gora, zientziaren eta teknikaren arrakasta harrigarriek beroturik, zenbait zientzialari eta pentsalarik *positibismoaren* axioma edo printzipio nagusia aldarrikatu zuten “Vienako Adierazpena” deritzan hartan (1929): “Erreala den guztia enpirikoki ezagut daiteke; enpirikoki ezagut daitekeena bakarrik da erreal”. Hau da, formula matematikoen bidez neurtu, adieraz eta frogatu daitekeena bakarrik da egiazko, erreal. Gainerako guztiak ez dira egia. Argi eta labur esanda, gainerakorik ez da. Zer esan positibismo gordin honetaz? Gutxien gutxienik, hauxe: erlijioari salatzen dizkion sinesgai eta dogma guztiak bezain dogmatikoa eta frogaezina dela positibismoaren printzipio nagusi hori; izan ere, egiazkoa zer den matematikak bakarrik erakusten duela, hori ezin du inork ere matematika bidez frogatu, “sinetsi” egiten du; positibismoa “fede” bat da nolabait, fede txar bat, beste hainbat fede txarren pareko. Positibismoaren oinarriak dogmatikoak dira. Eta hondagarri gerta daitezke aisa.

Geure mundu “moderno” eta “aurreratuari” begiratu besterik ez dago. Joan berria den XX. mendean gertatuak eta mende berriaren hasiera honetan gertatzen ari direnak latzegiak dira, “aurrerapen” deritzan horretan fede handirik izaten jarraitzeko. Zientziak eta teknikak sekulako lorpenak izan dituzte, eta gero eta abiada bizkorragoa daramate aurrera, baina, aldi berean, inoiz jasan diren oinazetik handienak jasaten ari di-

ra gizadia eta izadia. Zientzia ez da errudun, noski. Baina argi dago, garai bateko erlijio iluna bezain arriskutsu gerta daitekeela zientzia bera ere, modu “positibista” batean baliatzen bada, indartsuaren onerako eta irabaziaren mesedetan. Positibismoak porrot egin du.

Munduak berak eta eguneroko bizipenek erakusten digute, halere, eta zorionez, matematikak eta zientziek erakusten digutena baino askoz ere gehiago dela errealitatea, baita gure hitz eder eta ezindu hauek esan dezaketena baino ere; askoz gehiago: ameslari eta pentsalari uzten gaituen poema, haurrari arima eta begiak zabal-zabalik uzten dizkion ipuina, maiteminduek elkarri bihotzera eta belarrira xuxurlatzen dioten hitz ezitia, hurbil eta urrun justizia izan dadin bizia pixka bat edo osorik arriskatzen duten militanteen adorea, lasai eta urduri begiratzen dugun ilunabar barea, barrenean eta azalean ikara eragiten digun doinu miragarria, eta eliza bateko ilun-argi gozoak bularrean gora dakarkigun bakea, eta... eta... Hori guztia ere *bada, erreal da. Eta egia balitz?*

2. Erljioa berriro

Duela bost urte, gure arteko gazteei galdetu zitzaieanean zer zen beraientzat oso garrantziko, zerrenda luze batean azken aurreko gelditzen zen erlijioa,

politikaren aurretik juxtu: %6,5arentzat bakarrik zen erlijioa oso garrantziko (politika %3,6arentzat; familia, berriz, %70,2arentzat, adiskideak %59,7arentzat, lana %57,4arentzat, dirua irabaztea %49arentzat...)¹. Datu gogorrak dira. Gazteei erlijioak axolarik ez.

Baina horrekin ez daude esateko guztiak esanda. Zer ulertzen dute gazteek “erlijio” hitzaz? Hori jakin behar. “Erljio” esatean ez ote dute batik bat “erlijio-erakundea” edo “erlijio eratua” ulertzen, hau da: sineste, arau eta erri-tuz mamituriko sistema eta gizarte-erakundea? Argi dago, gisa horretako erlijio-erakundeak gazteei (eta heldurik gehienei) ez diela axolarik. Nekez esan daiteke, ordea, gure gazteriarri bizitzako “azken” galdera handiek eta bizipen sakonek axolarik ez dietenik. Mila modutara nabari da bilaketa, galdeketa, egarria. Esate baterako, aipaturiko itaunketan, %73ak aitortzen du bere burua “sinestun” (praktikatzailerik izan edo ez izan), %65ak dio Jainkoarengan sinesten duela, %43ak “geroko bizitzaren bat” sinesten duela, %39ak nola edo hala otoitz egiten duela, %45ak haraindiko laguntza eskatzen duela, %21ak meditazioa egiten duela...

Joan den urtean, J. Elzok berak idazten zuen: “Azken urte hauetan, erlijio-dimentsioaren premia ez da gutxi-

¹ Ik. J. Elzo (zuz.), *Jóvenes españoles 99*, Fund. Santa María, Madril 1999. Espainiako gaztediaz esaten duenak euskal gaztediarentzat ere funtsean berdin balio du.

tu Espainiako gaztediaren baitan; alde-rantziz, badirudi handitu egin dela, erlijio-erakundearekiko atxikimendua txikia delarik aldi berean”².

Bistan da, gure gazteek ez dutela apenas kristau-kulturarik jaso, hots, ez dituztela kristauon ohiko esamolde eta bizimoldeak bere egin; ondorioz, “azken errealitateari” buruzko galderak, susmoak eta desirak beste modu batera adierazten dituzte maiz. Igarri egin behar.

Nolanahi ere, begirale askoren esanetan, gure gizartea erlijio-egarri da berriro, benetako espiritualitatearen egarri. Aurrerapenaren ideologiak eginak zizkion hamaika agintzari ederrek huts egin diote. Justiziaren aldeko borrokarako adorea eta mundu hobe baten esperantza eskaintzen zizkion zenbait ideologiak ere huts egin diote. Mendetan zehar bizitzarako nahiz heriotzarako euskarriak eman dizkion kristau-erlijio ofizialak ere neurri handi batean huts egin dio. Ondorioz, Mendebaldeko gizartea, noraezean eta umezurtz, berriro erlijio bila abiatua dela esan daiteke. Ez, noski, lehengora itzultzeko, ez galdia berreskuratzeke, garena eta den guztia biltzen duen misterio hondogabe eta kontsolagarrian murgiltzeko baizik. “Transzendentzi garaietan” bizi gara³.

Hainbat eta hainbat filosofo eta pentsalarik erlijioa hartua dute ostera ere gogoeta-gai. Batzuk bakarrik aipatzearren: P. Ricoeur, E. Levinas, J. Derrida, G. Vattimo, J. Habermas, E. Trías, J.A. Marina...⁴ Dozenaka erlijio-mugimendu berri sortu omen da azken urteotan, erlijioa bizkortzen ari denaren seinale, hainbat iragarpen eta iragarleren kontra.

3. Erlijio bizipena ala erlijio sistema?

Horiek horrela, kristau askok arnasa hartuko dute eta esango: “Ikusten? Erlijioak arrazoi. Oraingoan isildu beharko dute fedegabe eta fedearen etsaiek. Geurea dugu etorkizuna!” Ez da batere ziur, gaurko erlijioa lehenera doanik edo lehengo erlijioa (nahi bada, kristautasuna) lehenean datorrenik. Ez da batere ziur, erlijioaren arrakastak eta gorakadak kristautasun tradizionalaren eta kristau-elizaren gorakada ekarriko duenik. Badirudi, alderantziz gertatuko dela, alegia: erlijio-sentipena gora eta erlijio-erakundeak behera joango direla. Mendebaldeko “kristau-munduan” behinik behin horixe ari da gertatzen. Izan ere, egarri den askok, gero eta gehiagok, gure Elizan ez dute aurkitzen aseko dituen urik.

² J. Elzo, “Los valores de los jóvenes españoles de hoy”, in *Seminarios* 167 (2003), 41. or.

³ L. Boff, *Tiempo de transcendencia*, Sal Terrae, Santander 2002.

⁴ Ik. J.M. Mardones, *Síntomas de un retorno. La religión en el pensamiento actual*, Sal Terrae, Santander 1999; J. Derrida - G. Vattimo - E. Trías, *La religión*, PPC, Madril 1996.

Eta horrek serio pentsarazi behar liguke. Guregandik aldendu direnek ere izango dute beren baitan zer azterturik. Baina horrek ez digu kentzen geure buruari egin beharreko galdera: zer daukagu emateko espiritualitate sakon eta biziaren bila dabilen gaurko gizakiari? Inork ulertu ezin duen dogma-sorta bat eta inork onartu ezin duen moral-araudi bat eta inor beteko ez dituen erritu batzuk, eta guztia gainera eliza hierarkiko zurrun eta zahar baten barruan ongi kateaturik? M. Corbí-k arrazoï duela uste dut: “Gizarte industrial berrietako gizakiei eta kulturari biziki interesatzen zaie erlijioa; baina ez zaizkie interesatzen *sineskizunak, ortodoxiak, filiazioak eta hierarkiak*”⁵.

Hori ez baita erlijioa. Esan dezagun garbi: fede izatea ez da “zerbait” edo “zerbaitetan” *sinestea*. Fedea ez da, funtsean behintzat, hau eta hura “sinestea”. Hauxe dugu erlijioarekiko gaizki-ulerturik handienetakoa. Baita kristautasunarekiko gaizki-ulerturik kaltegarrienetakoa ere. Eta “kanpo-koen” artean ez ezik, kristauon artean ere guztiz errotua dago. Eta norbaiti eskandalagarri xamar gertatzeko arrisku eta guzti ere, esatera ausartzen naiz: fededun izatea ez da erlijioari buruzko konbentzimendu batzuk edukitzea; fededun izatea ez da “Jainkoa badela” edo “Jainkoak hau eta hura esan edo

egin duela” sinestea; fededun izatea ez da “fedeko egiak” xuxen sinestea eta bere horretan gordetzea; kristau izatea ez da Kredoan esaten ditugunak eta dogma direlakoak (esate baterako, Jesu Kristo Jainkoaren Semea dela, Andre Maria jatorrizko bekaturik gabe jaio zela, aita santua hutsezina edo infaliblea dela, hildakoak piztuko direla, etab...) zehatz aitortzea. Luze eztabaida daiteke, dogmak aitortzea zer den, edo dogma guztiak “sinetsi” gabe norbait kristau izan daitekeen ala ez. Baina eztabaidarik ez dago, dogmak “sinestea” ez dela kristau izatearen funtsa.

Zer da, beraz, fedea, fededun izatea eta, bereziki, kristau izatea? Naizen guztia Jainkoarengandik esker onez hartu eta naizen guztia konfiantzaz Jainkoarengan uztea. Bizitzako gorabehera guztietan, atsegin nahiz samin, Norbaitek eskutik hartuak gaudela nolabait “sentitzea”. Nazaretoko Jesus bezala, Jainkoarekiko konfiantza xumez eta lagun hurkoarekiko elkartasun eraginkorrez jokatzeko. Gauza guztietan Jainkoa eta gauza guztiak Jainkoarengan maite izatea. Azken azkenean, Jainkoaren eta izakiaren beteko izatea, zoriontsu eta maitekor izatea. Bizitzako gorabehera eta galera guztietan.

Horra zer behar lukeen erlijioak. Horra zertarako behar luketen sineski-

⁵ M. Corbí, *El camino interior. Más allá de las formas religiosas*, Ed. del Bronce, Bartzelona 2001, 11. or.

zun, arau, erritu, erakunde guztiek. Egia esan, eta horretarakoxe hain zuzen, horiek guztiak beharrezkoak dira bere neurrian eta moduan. Sineskizunak, moral-arauak eta errituak ez dira zaharkin gisa errazegi gutxietsi behar. Elkarte baten eskakizunak eta loturak ez dira aisegi astindu behar. Izan ere, izaki hiztunak garenez gero, ez da posible fededun izatea nolabaiteko sineskizunik eta “konbentzimendurik” gabe; eta izaki gorpuzdunak garenez gero, ez da posible Jainkoaren misterioan murgiltzea nolabaiteko erriturik eta sakramenturik gabe; eta nahitaez gizar-teko gizakiak garenez gero, ez da posible fedea bakarka eta inolako elkartelegerik eta inolako hizkuntza komunik gabe bizi izatea. Baina bizipena da erlijioaren muina, irizpidea eta neurria. Beraz, bizi den ororen malgutasuna beharko dute ezaugarri nagusi. Bestela, sineskizunak sineskeria bilakatzen dira, arauak uztarri, errituak magia.

Baina “kanpotik” begiratzten diguten askok, gehiegik, sistema dogmatiko zurrun eta araudi moral estu bezala ikusten dituzte sarri gure kristautasuna eta eliza. “Zirtzildura nabari da erlijioetan nonahi: funtsezkoaren ahaztea, formalismo hutsa, errituei nahiz moralari nahiz teologiari buruzko kasuistika”⁶. Zer eskaintzen diegu, bada, kristauok gaurko gizon-emakume egartiei? Zer,

espiritualitate bila dabilen hainbat gazte eta helduri? Zer, gure kristautasunak betetzen ez eta, isil-isilik urrunduz joan edo urrunduz ari zaizkigunei? Zer, gure fedeko hainbat sineskizun ulergaitz eta “sinesgaitz” gertatzen zaizkienei, gure moral-araudiko hainbat arau onargaitz eta biziezin gertatzen zaizkienei? Zertarako da erlijioa bizipoza areagotzeko eta bizitzako zamak arinagotzeko ez bada?

4. Erlijioaren okerrak

Erljioak gaur zentzurik bai? Nolako erlijioa den. Izan daiteke zentzuzkoa, are zentzuaren sorburua. Eta izan daiteke zentzugabea, are zentzu ororen leizea. “Gizakiak duen onena erlijioaren baitan dugu. Beronek inspiratuak dira jeniorik handienak, kulturarik errefinatuenak, katedralak eta tenplurik ederrenak; beronen izenean egin dira ekintzarik heroikoenak. Baina erlijioa izan da, baita ere, gauzarik okerrera, denetan zitalena. Opioa ez ezik pozoia ere izan da, eta arlo guztietan krimenik handienak eta itxuragabekeriari okerrak egiteko aitzakia”⁷.

Aipa ditzagun arrisku eta oker nagusiak, horiek ere aipatzekoak baitira. XIX. eta XX. mendeetako erlijioaren kritiko sonatuek esan zituzten funtsezkoenak, eta gaur zentzuzko fededun izan nahi dugunok ez genieke inolaz entzun-

⁶ J.A. Marina, *Dictamen sobre Dios*, Anagrama, Bartzelona 2001, 132. or.

⁷ R. Panikkar, *Iconos del misterio. La experiencia de Dios*, Ed. Península, Bartzelona 1998, 105. or.

gor egin behar: erlijioa aisa gertatzen da bidegabeko egoera baten, zapalkuntza sozial eta ekonomikoaren justifikatzaile (K. Marx), moralismo estu eta larriaren fruitu eta sostengu (F. Nietzsche), haurdesira eta lilura heldugabeen agergarri eta eragingarri (S. Freud); funtsean, beldurraren emaitza eta emaila, orotariko giza beldurren sorkari eta sortzaile. Oker horiek puri-purian ageri dira “erlijio” izena daramaten hainbat sektatan, eta kristautasuna iragartzeko eta bizitzeko hainbat modutan ere bai tamalez.

Erljioaren perbertsiorik gehienak eta, zalantzarik gabe, perbertsiorik zitalenak botereari lotuak daude. Boterea bilatzen duenean, boterearekin elkartzen denean, boterea ezartzen duenean, erljioarenak egin du. Erakunde boteretsu bilakatzen denean eta erakunde boteretsuekin aliatzen denean, orduan dena hondatzen da mami-mamitik: ideologia bihurtzen da Kredoa, morrontza elkartasuna, beldur konfiantza, menpe-tasun erantzukizuna, hierarkia elkarte, txantaje sakramentuak eta, botere-sistemaren gailurrean, goi-jauntxo Jaungoikoa. Sinetsia nago, eskoletan erljioa (kristautasuna nahiz beste erljioak) erakustea gizartearentzat guztiz onurakor dela, ongi erakusten bada. Baina zeinen erraz bihur daitekeen eskolako erljioa pribilejioetarako aitzakia, trakerako txanpon: “zuk Elizaren alde legea jarri, eta Elizak zure alde zenbait lege baietsi”. Hitz batean, botere-bide, botere-joko. Erljioaren hondamen.

Zientzia gorenen eta punta-punta-ko tekniken garaian erljioak bizkor irauteak ez luke izan behar fededunontzat lasaigarri. Izan ere, bere betiko arriskuekin dago bizirik gaur ere erljioa. Eta arrisku horiei adi egonez eta aurre eginez bakarrik izango da zentzuzko eta probetxuzko. Gizakiari zoriontsuago eta elkarkideago izaten laguntzen badio, badu zentzurik, bestela ez. Eta fededunoi dagokigu, geure adierazpen, jokabide eta erakundeetan frogatzea, injustiziaren eta zapalkuntzaren salatzaile dela erljioa, justiziaren eragile, bizi-pozaren sustatzaile, lilura txarren eragozle, heldutasunaren lagungarri, eta hitz batean beldurraren askatzaile.

Gizakiak, eta gaurko gizakiak bereziki, espiritualitatea behar du, eske ari da. Baina geuregan barnerago sartzten eta geuregandik kanporago ateratzen gaituen espiritualitatea; errealitatea mirestera eta errespetatzera, zaintzera eta aldatzera eragingo duen espiritualitatea; geure minak eta besterenak sendatzera, lotzera, gozatzera eragingo digun espiritualitatea.

5. “Ez gara geure baitakoak”

Jose Miguel Barandiaran handiak esaldi bikain batean zizelatu zuen giza izaeraren zoria: *Ez gara geure baitakoak*. J. Sarrionandiak bere liburu-etako baten titulu bihurtu zuen, eta guk aldizkari honen ikurritz hartu dugu.

Ez gara geure baitakoak: ez gara geure buruaren azken egile, ez gara geure izatearen lehen emaile. Beste bik egin gintuzten, munduaren ardatza bera den gorputz-arima biren ikara gozotan. Eta biz osatutako zelulaxo ezerez bat besterik ez ginen, unibertso mugagabearen baitan –eta amaren sabel epelean–. Eta erdiminetan jaio ginen, betidaniko batasunean egon nahi eta ezinaren erdiminetan. Eta geure buruaren jabe izan behar eta ezinaren kordokan abiatu ginen, eta horretan gabilta oraindano. Eta “ama” eta “aita” esaten ikasi genuen, geure baitakoak ez izan arren seguru eta lasai bizi gintezkeela sentitzen genuelarik –eta, aldi berean, zeinen bakar, zeinen umezurtz!

Ez gara geure baitakoak: garenaren erdia besterik ez gara, gizakume ala emakume –inoiz ez, halere, erabateko emakume nahiz erabateko gizakume–, eta bata bestearen bila gabilta hamaika modutan, sortu gintuen elkarren ikara gozoaren oroimenez eta oroimenez.

Ez gara geure baitakoak: geu gara, baina halere beti eta erabat bestez osatuak. Arnasten dugun aireari esker gara, elikatzen gaituen ogiari eta asetzen gaituen urari esker, begirune erlijiosoz zapaldu behar genukeen ama lur sakratuari esker, egunez epeltzen eta argitzen gaituen eguzki jaunari esker, gauez laguntzen eta erakartzen gaituen ilargi

amandreari esker, ameslari eta haraindira zabalik jartzen gaituzten izarrei esker.

Ez gara geure baitakoak: ez gara geureak eta ez gara geuretzat. Geure burua besteren dohain badugu, besteri zor diogu. Geure buruaren jabe gara, baina besterengandik hartuta. Geure buruaren jabe gara, baina besteri emateko. Besteren senar-emazte, aita-ama edo neba-arreba, besteren herrikide edo lankide, adiskide edo maitale, lagun hurko edo laguntzaile izanez bakarrik gara geu. Bere buruari edo zilborrari begira dagoena bere buruaren kalterako ari da, besteren kalterako ez ezik.

Ez gara geure baitakoak: horregatik da gizakia funtsean erlijioso. Horregatik da gizakia mugalari, eta ageri ez denaren muga eta zantzu bezala ageri zaio den guztia, begiratzen badaki. Eta horregatik, askotan, “galdurik ibiltzen gara, lantzean behin besterik ez dugu enkontru egiten, guretzako lekurik aski ez duen mundu zabalegian”⁸. Beti barnerago eta gorago. Haratago begira beti, eta gehiagoren egarri. Geure baitan kabitu ezinik.

Ilunabarra. Dena bare. Aire geldian denboraren arnasa. Misterioaren mintzo isila. Bihotzean kilima, gozo eta min. Edo hondartzan zabilta, ur-ertzean harantz eta honantz. Itsas uhinak harea xehan emeki hilez eta jaioz, behin eta berriro, eta zure oinak eztiki lastanduz, be-

⁸ J.Sarrionandia, *Ez gara geure baitakoak*, Pamiela, Iruñea 1993², 91. or.

hin eta berriz muin emanaz. Hain urrun itsasoaren eta zeruaren arteko muga, hain hurbil zeure oinetan itsasoaren eta lurra-
ren arteko muga. Muga iheskorra, atze-
manezina. Misterioa, hurbil eta iheskor.
Eta izatearekiko esker ona eta konfian-
tza, izaki ororekiko harrimena eta begi-
runea, lehenaren eta geroaren oroimena,
edertasun eta maitasun osoaren desira,
orotasunaren mina, “oromina”... Erljioa.

Eta hitzaren miraria, geure baitakoak ez garenaren lekuko. Hitz bakoitza mugaren, muga-izaeraren adierazpen. Den guztia esan behar eta ezin. Hortik dator-
kio hitzari bere ondoeza, “hitzen ondoe-
za” (J. Sarrionandia): sumatzen den guz-
tia esan ezin, esan nahi den guztia agor-
tu ezin, esaten den guztia gauzatu ezin.
Ondoez horixe da, halere, gure hitzen
zoriona, ahalmen gorenaren: errealitatearen,
munduaren, guztion bizipenaren fun-
tsezko “gehiagoa” eta gehiegia. Esanago
eta esateko gehiago, esateko gehiegi be-
ti. Eta hori mingarri da, baina baita goza-
garri ere, edozein poetak esango ligukee-
nez. Zertaz hitz egingo genuke, esan ezin
denaz hitz egiterik ez balego?

6. Bestelako mundu baten amets

Daukagunarekin, dakigunarekin, dagoenarekin, dagigunarekin ez dugula aski adierazten du erljioak. “Beste zer-
baiten” edo “bestelako zerbaiten” be-
harrean garela, garena osorik izango
bagara. Mundu hobearen esperantza is-
latzen du, edo islatu nahi luke.

Ametsik ederrenaren adierazgarri, beraz. Eta ametsaren adierazgarri ez ezik, ametsaren euskarri ere bai. Etsi-
penaren ziztagarri, nagiaren akuilu, ametsaren eragile, utopiaren oroipen.
Bizi dugun hutsetik nola bizi? Dauka-
gun munduarekin nola etsi? Arestian aipatu dudan inkestaren arabera, gure gazteen %43ak bere burua errebelde aitortzen du munduko egoeraren aurrez aurre. Hala behar luke. Hala izango ahal da! Horixe litzateke, azken batean, erljio-zantzurik garbiena. E. Sabato, argentinar idazle handia -bera bai errebelde, errebelderik bada-, hamasei urte zituen z gero anarkista eta komunista izana, botere guztien salatzaile eta aurkari kementsua, ez da sinesbera eta elizkoi izan inoiz, baina bai ameslari eta borrokari. Laurogeita hamahiru urte baditu, hainbat ametsen hainbat porrot hainbat ikusia da, baina ez du etsi. Gure mundua etorkizun hoherantz ote doan sinestea kosta egiten zaio, baina ezin du amore eman. Ez da tenpluzale, baina are gutxiago bankuzale, eta oso kezkatu-
rik begiratzen dio gaurko gure mundu hotz sinesgabeari, tenpluen ordez bankuak eraikitzen ari garen honetan. Eta bestelako mundu bat begi-nietan etengabe izatera eta bestelako mundu baten alde etsi gabe saiatzera egiten dio dei gaurko gaztediari. Eta mundu berri bat posible dela sinestara-
ziko duen eta mundu zuzenago bat eraikitzen eragingo duen erljioaren premia sumatzen du. Premia eta, agian, aukera ere bai: “Garai espiritual bat,

batez ere espirituala, atarian dugula iruditzen zait, zeren eta bestela erremediorik gabe galduak gara”⁹.

Jakina, edozein erlijio edo espiritualitate ez da egiazko ametsaren eragile. Ongizate pertsonal hutsaren neurriko erlijio arina, barne-orekaren premia hutsa asetzea helburu duen erlijio psikologikoa, gizartearen eta izadiaren zauri larriek axolarik ez dien erlijio estetikoa, nor bere buruari begira bakarrik bizitzera daraman erlijio eroso, misterioaren sakonean murgiltzera eta barne-berritzera ez daraman erlijio funsgabea, justiziazko eta guztien zorionezko mundu berria eraikitzen saiatzera eragiten ez duen erlijioa... benetako erlijioaren eta espiritualitatearen ukapen dira. Eta moda-modan daude horrelako joerak.

Asmatuko ahal dugu, ametsari fresko eta eraginkor eutsiko dion erlijioa, kristautasuna, biziberritzen eta eraberritzen! Zertarako egin amets, ordea, ametsak inoiz gertatuko ez badira? Arrazoizko galdera dugu agian, baina beste hau arrazoizkoago: nola gertatuko dira ametsak egia, gertatuko direnik espero ez badugu eta gertarazten saiatzen ez bagara? Gizadi eta izadi osoarentzat ametsik ederrenak gauzatuko direla espero du fededunak, zalantza eta guzti. Eta gauzarazten saiatu behar luke, ahuleria eta guzti. Baina erlijio-fededuna ez da ameslari hutsa, ezta ahaleginzale hu-

tsa ere. “Zerbait” edo “Norbait”engan duen konfiantzak eragiten dio fededunari esperantzara eta ahaleginera. Eta horixe da, hain zuzen, atzo eta gaur, erlijioaren zentzua: gure amets lauso guztien oinarri den Errealitatearen ziurtasuna, gure itxaropen hauskor guztien jatorri den Dohainaren sentipena, gure utopia erorkor guztien sorrera den Presentziaren bizipena, gure egarri lehor guztien iturburu den Asebetearen dastamena. Errealitatea, Dohaina, Presentzia, Asebetea eta beste hainbat gauza esan gabe eta esanezin: horrixek deitzen diogu kristauok *Jainkoa*.

Eta hori guztia ere, Jainkoa bera ere, ametsa balitz? Nondik letorke, ordea, gure ametsa? Eta gure mundu eder bezain minbera honek ba ote luke zentzurik, ametsik ederrenak amets huts balira, edo ametsik ederrenei uko egin behar bagenie. Noski, egarriak ez du frogatzen inon iturririk badenik. Baina aseko nauen urik inon ez balitz, nire egarriak ba ote luke zentzurik? Eta, nolana ere, urik ez dela-eta, uko egin al niezaioke egarri izateari? Fededunak beste susmo bat darama barnean: ura neure izakeran daramadalako edo urez egin naizelako naizela egarri, iturritik natorrelako naramala iturri-minak, iturriaren deiak. Susmoa bakarrik? Zergatik ez, “Jainko” deitzen dugun misterio hurbil eta sakonak altzoan garamatzen bihozkada gozoa?

⁹ E. Sábato, *El País* egunkaria, 2002ko maiatzaren 15a.